VILLA ONDARGAIN
D MAILA

ZUMALAKARREGI HIRIBIDEA 04
ZUMALAKARREGI HIRIBIDEA 04 ETA INFANTE DON JAIME 02





Egilea eta data: Eugenio Lagarde; 1929

Deskribapena
Txalet bakartua, erdisotoa, behe oina edo bastardea eta jatorrizko goi oin bat dituena. Duela gutxi jasodura bat erantsi da fatxada planoan eta beste bat estalkipean. Harlangaitz horma entokatuzko fatxada, behe oinean sarrerako arkuak dituena, eta lehen oinean, erdiko baoaren harlanduzko azpadura.

Babes erregimena
1. Erregimen orokorra.
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (azken oina fatxada planoan; estalkipea).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: jatorrizko harlanduzko elementuak (eraikuntzaren atal babestuan kokatuak: erdisotoa; behe oina edo bastardea; lehenengo goi oina).
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.